



Izenburua	Euskaraz egin nahi dugu (lan) Hernaniko Udalean. Zertan eta nola ari gara?
Egilea	Luis Intxauspe
Data	2012/03/23

aurkibidea

1. Kokapena.....	03
2. Zergatik?	04
3. Zer egiten dugu?	05
4. Zailtasunak	07
5. Aurrerantzean	09

1. Kokapena

2011ko udal hauteskundeen ondoren Udalean lanean hasi ginenean, euskaraz ere lan egiten zen, baina oraindik egitekorik bazegoela eta beste pausu bat eman nahi izan genuen. Idatzizkoan dokumentu asko egiten zen ele bietan, eta Udala hasia zen horrela nahi zuten herritarrekin harremana euskara hutsean bideratzen, eta hainbat sailetan txostenak euskaraz egiten ere bai. Batzordeetako ahozko hizkuntza berriz gaztelania zen gehienetan, arduradun politiko erdaldunak bazirelako batzorde guztietan.

Eguneroko lanean lan gehiena gaztelaniaz egiten zen. Dokumentu ia guztiak ele bietan egon arren, dokumentuak bi zutabetan idatzita zeuden, ezkerrekoa euskaraz eta eskuineko gaztelaniaz, eta langileek eskuineko zutabearekin egiten zuten lan. Hau da, formalki euskarak presentzia bazuen dokumentu guztietan, baina presentzia formala zen, itxurazkoa; euskarak presentzia izan zezan baina ez lan hizkuntza izan zedin. Hau elebitasun okerra da, ez da erreala. Honek ez du ziurtatzen lana euskaraz egiten denik. Gurean behintzat, langile gehienek gaztelaniaz lan egiten zuten erabat, nahiz eta euskara ageri testu guztietan. Elebitasunaren kontzeptua modu horretara ulertuta, sistematikoki bi hizkuntzetan lan egitea, zama bat da, euskaraz lan egiteko prozesuari jartzen zaion fretoa.

Guk euskaraz lan egin nahi dugu, ez ele bietan; eta are gutxiago elebitasunaren itxurapean gaztelania hutsez lan egin. Guk ahoz zein idatziz euskaraz aritu nahi dugu, lan hizkuntza euskara izan dadila. Udalaren funtzionamendurako guneetan: batzordeetan, Osoko bilkurak, bileretan... euskaraz egin nahi dugu. Eta euskaraz sortu dugun hori aztertuko dugu itzuli ala ez, noiz itzuli...

2. Zergatik?

- ❖ Euskaldunak garelako, euskara gure hizkuntza delako eta Euskal Herrian gaudelako.
- ❖ Udalak 20 urte eman dituelako lanean honetarako. 2.000 urtetik aurrera Euskara Planarekin lanean ari garelako, egun 4. plangintzaren amaieran gaude, 5.ari ekiteko prest. Urte guzti hauetan lan asko egin dugulako langileak euskalduntzen, trebatzen eta prestatzen. Lan asko egin dugulako dokumentuak lantzen, ereduak sortzen, irizpideak finkatzen. Lan asko egin dugulako gure herritarrei dagokien zerbitzua dagokien moduan eta hizkuntzan eskaintzeko. Lan asko egin dugulako eta diru asko inbertitu dugulako. Diru asko inbertitu dugulako langileak euskalduntzen, prestatzen eta trebatzen. Dirua inbertitu dugulako beharrezkoak diren bitartekoak izatearren: pertsonalak zein materialak. Eta egun prest gaudelako. Langileak gai gara lana euskaraz egiteko, eta horretarako prest gaude. Lanak eta inbertsioak merezi izan du, bere fruituak eman ditu.
- ❖ Legeak eskubidea eta aukera onartzen digulako:
ROF: Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen de las Entidades locales

86. artikulua dioen bezala, deialdiak, gai-ordenak, mozioak, proposamenak, diktamenak eta aktak gaztelaniaz edo Erkidegoko hizkuntza ofizialean egin daitezke; beraz, euskaraz egin daitezke, eta euskara hutsean egin daitezke.
- ❖ Legeen interpretazioak jartzen dizkigun mugetara makurtu nahi ez dugulako. Legeak dioenari eta legaltasunari begira lan egingo bagenu soilik, gure herrian egun normaltzat ditugun ikastolak, UEMA... eta beste hainbat elkarte eta egitasmo ez lirateke sortu edo garatuko eta euskarak ez luke egun ezagutzen dugun egoera izango.
- ❖ Sistematikoki dena itzultzea ez zaigulako irtenbidea iruditzen. Garestia da oso, denbora asko behar delako, eta beharrezkoa ez bada, hobe horretan dirurik ez xahutzea garai hauetan. Ez da eraginkorra, gaztelaniaz irakurtzeko inertzia dugulako. Eta ondorioz ez da didaktikoa, ahaleginik ez delako egiten euskarazko bertsioa irakurtzeko edo ulertzeko ere. Ez dago ahaleginik euskaraz lan egiteko.

3. Zer egiten dugu?

Hernaniko Udalak 2010eko martxoan Hizkuntza Irizpideak onartu zituen. Dokumentuak euskal alderdi guztien babesa jaso zuen eta espainiar alderdien abstentzioa. Bertan udal funtzionamenduan nola aritu zehazten da eta hau da guk egin duguna, irizpide hauek aplikatu.

Ahozkoan euskaraz egiten dugu lan, lan bileretako hizkuntza euskara da, eta horrela jasotzen du onartutako dokumentuak. Norbaitek ulertzen ez duelako itzulpena eskatzen badu, esandakoa itzuli egiten zaio, gaztelaniazko laburpena edozein ordezkari politikok, teknikariak berak edo idazkariak ere egiten du, gaiaren arabera; eta ondoren euskaraz jarraitzen dugu.

Idatzizkoan euskaraz lan egiteko aurrerapauso handia egin dugu: bilera deiak, gai-ordenak, aktak ia denak eta diktamenak euskaraz egiten ditugu. Txostenak ia erabat euskaraz egitea lortu dugu nahiz eta oraindik gaztelaniaz sortzen diren idatziak egon, langilearen trebeziaren eta ohituren arabera. Euskaraz egiten diren ia txosten guztiak (ulerterrazak salbu) laburpen txiki bat daramate gaztelaniaz, txostena idatzi duenak berak laburtua.

Euskaraz sortzen dena euskaraz jasotzen da eta gaztelaniaz sortzen dena bere horretan agertzen da aktetan. Ez dugu dena itzultzen. Ez dugu beharrezkotzat jotzen dena itzultzea. Ez dugu uste dena sistematikoki itzultzea egokia denik. Euskaraz sortzen den guztia gaztelaniara itzuli eta alderantziz. Gaztelaniaz sortzen dugun edo jasotzen dugun dokumentuak horrela egiten du bidea etxe barruan. Eta berdin euskaraz sortzen denak edo jasotzen dugunak. Beharrezkoa denean, kalera doan dokumentua bada, eta hartzailearen arabera, ele bietan aterako da. Kasu hauetan itzuliko da, hartzaile ele bakarra denean edo horrela adierazi digunean (gaztelaniaz jasotako eskaeretan). Euskaraz jasotzen ditugun eskaerak euskaraz erantzungo ditugu eta gaztelaniaz jasotakoak ele bietan.

Idatzia beste administrazio batera badoa, helburua euskaraz bidaltzea da, edo zenbait gauza, ahal den guztia, euskaraz; eta beste zati batzuk gaztelaniaz edo ele bietan, sortze hizkuntzaren arabera edo dokumentuaren arabera. Gure nahia sistematikoki ele bietan ez bidaltzea da, eta gaztelaniaz ere ez ahal denean behintzat. Udaletik ateratzen den dokumentazioa euskaraz edo ele bietan aterako da, eta oso gutxi bada ere, zerbait badago oraindik gaztelania hutsez ateratzen dena.

Baina barne funtzionamendua izanik gure lan esparrua, bertan langile ia guztiek euskaraz lan egiten dute, eta gaztelaniaz egiten dutenen kasuan, lan hori horrela erreflejatzen da akta edo txostenetan. Euskaraz egindakoa euskaraz eta gaztelaniaz egindako gaztelaniaz. Nabarmen ageri da zein arlo eta zein langilek egiten duen gaztelaniaz, eta non dugun hobetzeko beharra.

Udal organoak

Lan bileretako hizkuntza

Udal organoetako bilerak euskaraz izango dira. Helburu hori betetzearren, beharrezko neurriak hartuko dira ulertzeko gai ez direnekin.

Barne funtzionamendurako dokumentazioa

Euskaraz izango dira:

- Bileretako gaiekin lotutako dokumentazioa.
- Bilera deiak eta aktak.
- Diktamenak.
- Txostenak, memoriak eta proiektuak.

Helburu hori betetzearren, Udalak plangintza bat adostuko du langileekin eta bertan beharrezko neurri, baliabide eta bitartekoak ezarriko dira.

Ulertzeko gai ez direnekin beharrezko neurriak hartuko dira.

4. artikulua. Tresna eta aplikazio informatikoak

Udalak berak sortutako programak euskaraz izango dira. Erositako programak ere euskaraz izango dira euskarazko bertsioa dagoenean.

5. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen politika

Hernaniko Udalaren helburua da udal langileek euskaraz lan egitea. Lan hori errazteko, hainbat baliabide eta bitarteko prestatuko dira: dokumentu eredu normalizatuak, baliabide informatikoak eta zuzenketa zerbitzua, besteak beste.

Dokumentuak, Udal barnean sortutakoak nahiz kanpotik datozenak, ez dira besterik gabe itzuliko. Dokumentuaren hartzaile den ordezkari politikoak itzulpena eskatzen badu, hitzez hitzeko itzulpena ez den beste bide batzuk aztertu eta landuko dira:

- a) Ahozko laburpena egitea.
- b) Idatzizko laburpena egitea (dokumentua egin duen pertsonak berak egingo du Udal barruko dokumentua denean).

Dokumentuaren ezaugarriak hala eskatzen duenean soilik egingo da hitzez hitzeko itzulpena. Horretarako jarraituko diren irizpideak eranskinen 2. atalean daude jasota.

4. Zailtasunak

4.1. Ordezkeri politikoak

Zailtasun nagusia euskaraz lan egiteko, ordezkeri politikoak dira. Gure Udaleko ordezkeri politiko guztiak ez gara elebidunak, beraz beraiek dira euskaraz lan egiteko oztoporik nagusiena. Beraiek dena gaztelaniaz ere nahi dutenez, honek etengabeko itzulpena garamatza. Ahozkoaren ulermenean moldatzen dira, edo noizbait, itzulpena eskatuta, gaztelaniara ahoz itzuli zaie. Idatzizkoan, hainbat dokumentu itzultzen zaizkie, baina badira hainbat idatzi euskara hutsean egiten direnak eta bestelako bitartekoak eskaintzen zaizkie uler dezaten: ahozko azalpena, laburpentxoak gaztelaniaz. Itzulpena egiten den kasuetan ere (hainbat batzordetako aktak), progresiboki desagertu egingo da itzulpena.

Argi dugu, alderdi politikoen ardura dela ordezkeri politikoen elebitasuna ziurtatzea. Horrela ez bada, alderdi bakoitzak bitartekoak jarri beharko ditu, euskaraz lan egin nahi duen Udalaren dokumentazioa euskaratzeko. Eta horrela ez bada, bestelako bitartekoak landu komunikazioa ziurtatzeko: zinegotzien arteko azalpenak, bileren prestatze bateratu eta koordinatuak..

Ordezkeri politikook ezin dugu urteak lanean daramatzen eta prest dagoen Udal baten hizkuntza jarduna baldintzatu. Ardura politikoz jokatu eta bitartekoak lantzea norberaren, eta alderdien ardura da. Hautagai elebidunak behar ditugu

4.2. Langileen ohiturak

Beste zailtasunetako bat langileen lan ohiturak dira. Langile askoren ohitura gaztelaniaz lan egitea da. Lana gaztelaniaz egin eta gero euskarara itzuli (askotan langileak berak). Gaitasuna izan arren, ohiturarik ez; beraz, ohituren aldaketaren beharra dugu.

Hau oso gai garrantzitsua dela iruditzen zaigu eta oso modu naturalean egin beharrekoa. Inor traumatizatu gabe, ito gabe. Zailtasunak dituzten pertsoneri lagunduz, beharrezkoak diren bitartekoak eskainiz, eta modu positiboan. Malgu baina tinko.

4.3. Zuzentasuna/egokitasuna

Betiko dilema honen aurrean ere malgutasuna da gure irizpidea. Gauzak zuzen idatzi behar dira, ondo idatzitako testuak nahi ditugu. Baina bide horretan, administrazioaren hizkuntza katramilatua, hainbat kasutan behintzat arindu beharrean gaudelakoan gaude. Ez dugu zuzentasun formala nahi, idatzi ulertezinak, zuzenak baina ulertezinak. Egokiagoa iruditzen zaigu testu sinpleak egitea, ez eskasak, baina bai ulerterrazak. Hizkera arruntagoa behar dugu administrazioan. Zuzen idatzitako testuak baina edozein herritarrek ulertzeko hizkera egokian. Eta barruko testuetan ez erabili boligrafo gorria. Langileak eroso sentitu behar du hizkuntzaren erabileran, sinetsi egin behar du gai dela euskaraz lan egiteko, euskaraz komunikatzeko, euskara ez dela ikastezina, etengabeko karga, lanean segurtasun eza sortzen duen elementua. Alderantziz, langileak seguru eta eroso sentitu behar du euskaraz lan egitekoan.

4.4. Hizkuntza irizpideen autogestioa

Hizkuntza irizpideen jarraipena ezin da izan soilik Euskara Sailaren eginbeharra. Hizkuntza normalizazioa transbersala den gaia izanik, Udaleko sail bakoitzak landu, erabili eta barneratu beharreko gaia da. Adibidez, kontratazio sailak badaki zein irizpide txertatu behar dituen kontratazioetan, bere egitekoa da hori gestionatzea. Udaleko sail guztietan hizkuntza irizpideen autogestioa bultzatu behar dugu, norberak gestiona dezala hizkuntzaren gaia bere lanean.

4.5. Langileen arteko ahozko jarduna

Hau izugarrizko erronka da. Herritarrekin, bileretan... euskaraz ari gara, baina departamentuetako barne harremanetan, formalak zein informalak, gaztelaniarako inertzia eta ohitura handia dago. Hemen eragin beharra dugu eta esan bezala erronka polita dugu.

5. Aurrerantzean

Hau guztia prozesu baten hasiera besterik ez da. Euskaraz lan egiteko hemen aipatutako zailtasun eta oztopoak modu positiboan landu behar ditugu, euskara ez dadila lanerako muga izan. Guk argi dugu zer nahi dugun eta bide horretan tinko jarraituko dugu.

Espero dezagun beste Udal eta erakundeek ere bide honetan lan egitea, euskararen normalizazioan urrats garrantzitsua izan daitekeelako. *Administrazioan euskaraz* leloa, egi bihur dadin eremu ahalik eta zabalenean.

Bide honetan lan eginda, alderdi politikoek ere behar duen garrantzia aitortuko diote hizkuntzaren gaiari, eta ea horrela lortzen dugun etorriko diren hauteskundeetako hautagaien zerrendak pertsona elebidunez osatzea. Ez da erronka makala, baina lorpena oso baliagarria euskararen normalizazioaren bideanean.



Gudarien Plaza 1, 1 esk. · 20120 Hernani (Gipuzkoa)
T_ (+34) 943 337 029 F_ (+34) 943 575 434
atea@hernani.net · www.hernani.net